

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuaren 1463/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 9koa; Bizkaiko Foru Aldundiko maiatzaren 12ko 31/2020 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzen dituena. Foru dekretu horren bidez onetsi egiten dira 2020. urtean zehar Bizkaiko kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egiteko foru diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta deialdia.

Maiatzaren 12ko 31/2020 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak 2020. urtean zehar Bizkaiko kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egiteko foru diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi du (2020ko ekainaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 102 zk.).

Aipatutako foru dekretuaren 11. oinarrian ezartzen denez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Azaldutakoa dela bide, artikuluko horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiak eta gainerako baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiko maiatzaren 12ko 31/2020 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena egin eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honakoak izango dira, beraz, epaimahaikideak:

- Epaimahaiburu titularra: Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua: Xabier Arauzo Uriarte. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
- Epaimahaikide titularrak:
 - Zuriñe Antoñana Ozaeta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
 - Alberto Santana Ezquerria. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko Etnografiako Teknikaria.
 - Marta Zabala Llanos. Kultura Ondarean aditua.
- Ordezko mahaikideak:
 - Iñaki García Camino. Bizkaiko Arkeologi Museoaren zuzendaria.
 - Amaia Mujika Goñi. Bilboko Euskal Museoko teknikaria.



- Maite Jiménez Ochoa de Alda. Bilboko Euskal Museoko teknikaria.
- Idazkari titularra, botorik gabe:
- Jaione Larrea Nájera. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.
- Ordezko idazkaria:
- Nahikari Gil Elorduy. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Honako foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko uztailaren 9an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA